

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko martxoaren 5etik 11rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/03/09

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.** Ebazpena, 2022ko otsailaren 24koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratu eta argitaratzen den tren-zerbitzuen enpresetako kanpoko laguntzarako eta bezeroaren arretarako zerbitzuetako sektoreko Estatuko V. hitzarmen kolektiboa. **3704 xedapena - 46 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/03/07

- **KANPO ARAZOETARAKO, EUROPAR BATASUNERAKO ETA KOOPERAZIORAKO MINISTERIOA. Kontsul babesak.** AUC/154/2022 Agindua, otsailaren 21ekoa, atzerrian kontsul babes eta asistentziarako laguntzak arautzen dituenak. **3525 xedapena - 10 or.**
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** Ebazpena, 2022ko otsailaren 23koa, Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez baldintzak ezartzen diren "AutenticA"ri lotutako sinadura elektronikoa ez kriptografikoa erabiltzeko, Estatuko Administrazio Orokorrarekiko eta hari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakundeekiko harremanetarako. **3527 xedapena - 7 or.**

2022/03/08

- **ESKUBIDE SOZIALEN ETA 2030 AGENDAREN MINISTERIOA. Antolakuntza.** DSA/159/2022 Agindua, martxoaren 2koa, erregistroen alorreko laguntza bulegoa sortzen duena. **3598 xedapena - 3 or.**

2022/03/09

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. Teleordainketa sistemak.** 183/2022 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, Espainiako errepideetako teleordainketa sistemen elkarreragingarritasuna arautzen duena. **3675 xedapena - 33 or.**
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Laguntzak.** 110/2022 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen den maiatzaren 22ko 511/2017 Errege Dekretua. Horren bidez, Espainian Europar Batasunaren araudiaren aplikazioa garatzen da fruta, barazkiak eta esnea kontsumitzeko eskola-programari dagokionez. **3676 xedapena - 8 or.**

2022/03/11

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Zerga-informazioa.** Akats-zuzenketa, honako agindu honena: HFP/115/2022 Agindua, otsailaren 23koa, zeinaren bidez onesten den negoziazio zentroetako balio negoziatuen zerrenda, 2021eko laugarren hiruhilekoari dagokion batez besteko negoziazio balioarekin, ondarearen gaineko zergaren 2021eko aitorpenaren, eta baloreen, aseguruaren eta errenten gaineko urteko informazio aitorpenaren ondorioetarako, eta aldatzen den abenduaren 1eko EHA/3481/2008 Agindua. Horren bidez, balore, aseguru eta errentei buruzko urteko aitorpen informatiborako 189 eredua eta haren diseinu fisiko eta logikoak onesten dira, eredu horren barruko orriak zuzenean ordenagailuz irakurri ahalko direnengatik ordeztzeko, eta hura telematikoki aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dira **3810 xedapena - 1 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN MINISTERIOA. Baso baliabide genetikoak. Flora basatia. Antolakuntza.** Akats-zuzenketa, honako errege dekretu honena: 159/2022 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, baso baliabide genetikoak eta flora basatia kontserbatzeko buruzkoa, eta zeinaren bidez aldatzen diren, batetik, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordearen osaera eta funtzioak zehaztu, bere funtzionamendua arautu eta berari atxikitako batzorde espezializatuak ezartzen dituen abuztuaren 14ko 1424/2008 Errege Dekretua, eta, bestetik, Baso Kontseilu Nazionalaren osaera, funtzioak eta funtzionamendu arauak ezartzen dituen urriaren 11ko 1269/2018 Errege Dekretua. **3811 xedapena - 1 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/03/07

- **EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** AGINDUA, 2022ko otsailaren 23koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Fakturazio Elektronikoko Zerbitzua eta Fakturen Kontularitza Erregistroa arautzen dituen 2014ko abenduaren 26ko Agindua. **1078 xedapena - 1 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/03/09

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 99/2022 Foru Agindua, otsailaren 22koa. Onestea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2021eko ekitaldiko aitorpenak aurkezteko arauak eta modalitateak. **529 xedapena - 4 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/03/09

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 459/2022 FORU AGINDUA, martxoaren 7koa. Honen bidez, otsailaren 17ko 515/2009 Foru Agindua aldatzen da, balore, aseguru eta errentei buruzko urteko aitorpen informatiboa egiteko 189 eredu onesten duena. **I-219 xedapena - 1 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/03/07

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 122/2022 Foru Agindua, martxoaren 2koa, honako hau zuzentzekoa: 98/2022 Foru Agindua, otsailaren 17koa, zeinaren bidez onesten baitira ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraibideren gaineko zerga berezia eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko. **1292 xedapena - 2 or.**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 123/2022 Foru Agindua, martxoaren 2koa, zeinaren bidez bi eredu hauek onesten baitira: 217 eredu, higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatutako dibidenduen eta mozkin partaidetzen gaineko karga berezia autolikidatzekoa, eta 237 eredu, higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatu gabeko mozkinen gaineko karga berezia autolikidatzekoa. **1291 xedapena - 6 or.**

2022/03/09

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 124/2022 Foru Agindua, martxoaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 5eko 91/2020 Foru Agindua, balore, aseguru eta errenten urteko aitorten informatiboa aurkezteko 189 eredu onesten duena. **1325 xedapena - 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2022/03/07

- Akats-zuzenketa, honako erregelamendu honena: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/953 (EB) Erregelamendua, 2021eko ekainaren 14koa, txertaketako, proba diagnostikoko eta errekupezioko COVID-19 ziurtagiri elkarreragingarriak (EBko COVID ziurtagiri digitala) emateko, egiaztatze eta onartzeko esparruari buruzkoa, COVID-19 pandemian zirkulazio askea errazteko (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, L 211, 2021eko ekainaren 15koa). **L 72/7 xedapena - 1 or.**
- **ERREGLAMENDUAK.** Batzordearen 2022/352 (EB) Eskuordetze Erregelamendua, 2021eko azaroaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen den 2019/815 (EB) Eskuordetze Erregelamendua, informazioa aurkezteko formatu elektroniko bakarrari buruzko erregulazioko arau teknikoetan ezarritako taxonomiaren 2021eko egokitzapenari dagokionez. **L 77/1 xedapena - 1186 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENA0, 26 - BILBAO